

		EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOKO MAILAK: B1 (3.URRATSA)
U L E R M E N A	Entzumena	Egoera ezagunetan aurkitzen diren hizketaldi arrunteko ideia nagusiak ulertu ditzake: lanean, eskolan, aisialdian, etab. Irrati edo telebistako interes pertsonal edo lanbideko gaietarako buruzko programen ideia nagusiak ulertzen ditu, emanaldia nahiko mantsoa eta garbia denean.
	Irakurmena	Eguneroko edo laneko hizkuntzarekin zerikusia duten testuak ulertu ditzake. Eskutitz pertsonaletan gertaera, sentimendu eta desioen deskribapena ulertu dezake.
M I N T Z A M E N A	Ahozko elkar eragina	Egoera gehienei aurre egin diezaieke. Aurretik ezer prestatu gabe sartu daiteke elkarrizketan gai ezagunen edo interes pertsonal edo eguneroko gaien inguruan (adib., familia, zaletasunak, lana, bidaiatzea eta gaurkotasuneko gertaerak).
	Ahozko Ekoizpena	Esaldiak modu sinplean lotu ditzake esperientziak eta gertaerak, ametsak, desioak eta nahiak deskribatzeko. Iritzi eta planei buruzko arrazoi eta esplikazioak eman ditzake oso labur. Ipuin bat kontatu edo liburu edo filma baten argudioa kontatu eta erreakzioak deskribatu ditzake.
I D A Z M E N A	Idazketa	Gai ezagunak edo interes pertsonalei buruzko testu sinpleak idatzi ditzake. Eskutitz pertsonalak idatzi ditzake esperientzia eta iritziak deskribatuz.